



**ZU GABE**

MUSIKA: **Herrikoia**

LETRA: **Igor Elortza**

ABESLARIA: **Nerea Urbizu**

ETXEKO ATEAN GAUR EZ ZAUDE ZU BAINA  
MUSU BATEK BUSTI DIT GOIKO EZPAINA  
SALAKO BESULKIAN FALTA ZARA BAINA  
NIK SOMATZEN DUT ZURE SAGAR USAINA

ZU GABE.... ZERUAN IZARRAK LAINO DAUDE

PASILLOAN EZ DABIL PAUSO HOTSİK BAINA  
BAI ZURE IBILERA AITZEKO AINA  
SUKALDEKO LEIHOA HUTSIK DAGO BAINA  
ERRETZEN DABIL LABE BETE GAZTAINA

ZU GABE... ZERUAN IZARRAK LAINO DAUDE  
ZU GABE... GAUR NIRE BEGIAK LANBRO DAUDE

MAHAI ERTZEKO AULKIAN EZ DA INOR BAINA  
AURTEN ERE ATERA DIZUT TXANPAINA  
KANTURAKO LAGUNA GAUR ESKAS DUT BAINA  
ZURI KOPLARI DANTZAN DAUKAT MINGAINA

ZU GABE... ZERUAN IZARRAK LAINO DAUDE  
ZU GABE... GAUR NIRE BEGIAK LANBRO DAUDE  
ZU GABE... BEGIAK IZAR NIREKIN ZAUDE